

5. ZK. ALDIZKARIA 2008

REVISTA

# Kontsumo

ALDIZKARIA

Gaia...

Gazteak, Aisia eta Teknologia Berriak

## Gazteak, Aisia eta Teknologia Berriak

Eskuko telefonoa, Internet, kontsolak, MP3 erreproduzizaileak eta argazki-kamera digitalak aisiaren "ekosistema naturalaren" osagaiak dira gaur egun. Gazteak ordenagailuez eta eskuko telefonoez inguratuta jaio eta hazi dira, eta, beraz, ez daude errealitate horretatik kanpo. Helduek irratia edo telebista ikusten duten naturaltasun berarekin hautematen dituzte gazteek aparatu horiek guztiak. Gazteek eguneroko baliabide gisa darabilte teknologia informazioa bilatzeko, harremanetan jartzeko, adiskide berriak egiteko, musika entzuteko edo astialdiaz gozatzeko.

### EGUN BAT MERKATARITZAGUNE BATEAN

Iñigo, Maite, Iker eta Leire ikaskideak dira. Gainera, elkarrekin igarotzen dute astialdia.

Asteburua iritsi da, eta ordu batzuetan ikasketak ahazteko eta gogoko duten guztiaz gozatzeko aukera ere bai.

Euria ari du. Larunbata ez da kalean ibiltzeko modukoa. Messengerraren bitartez, hiriko merkataritzagune handietako batean geratzea erabaki du taldeak.

*Gero eta gazte gehiagok dute Internet etxean. Hori dela-eta, gora egin du Messengerraren erabilerak komunikazio-*

*rako eta aisiarako tresna gisa. Zenbaitetan, eskuko telefonoa baino erabiliagoa da.*

*Komunikaziorako bide horrek arrakasta handia du gazteengan. Izan ere, mundu osoko pertsonekin harremanetan jartzeko aukera ematen du, eskuko telefonoarena baino gastu txikiagorekin eta ordutegiaren edo distantziaren eragozpenik gabe.*

*Dena dela, komunikaziorako bide eroso bada ere, online bidez komunikatzen denak kontuan izan behar du askotan ez dakiela norekin ari den komunikatzen, eta, beraz, tentu handiz ibili behar duela jasotako mezuei erantzutean. Era berean, ez ditu datu pertsonalak eman behar, hala nola norberaren edo ikastetxearen helbidea, banku-datuak eta abar.*



Bostak puntuan dira. Iñigo eta Maite iritsi dira lehenak. Besteen zain dauden bitartean, Internetetik jaisitako politono berriak elkarri erakutsi, eta Bluetootharekin trukatu dituzte.

## Gazteak, Aisia eta Teknologia Berriak

*Eskuko telefonoa berdin artean komunikatzeko tresna garrantzitsu bihurtu da. Eskuko telefonoari lotutako teknologia (argazki-kamera, bluetootha, infragorriak eta abar) dagoeneko ez da bigarren mailako zerbitzua. Gaur egun, oso kontuan hartzen da eskuko telefonoa aukeratu behar denean. Merkatua bizkor doa aurrera, eta osagarri mota oroz hornitutako telefonoak eta lotutako produktuak (politonoak, jokoak eta abar) "amu" ezin hobeak izan daitezke gudan premia berriak sortzeko. Kontsumitzaileak jabetu egin behar du horretaz, eta ongi balioetsi behar du zein den bere benetako premia eskuko telefonoa zein teknologia berrietan sartutako beste edozein aparatu eskuratzean eta erabiltzean.*



Leire iritsi da hirugarren, eta barkamena eskatu du atzerapenagatik. Interneten hiri barruko autobusaren lineak eta ordutegiak kontsultatu ditu, baina okerreko geltokira joan da eta galdu egin du azkenean. Horregatik, hurrengoaren zain geratu behar izan du.

Denbora aurrera doa eta Iker ez da ageri. Eskuko telefonotik dei egin diote, baina ez dute erantzunik jaso. Mezu bat bidaltzea erabaki dute:


*Kxo nn zd wp? Gldta :->  
Ndk? Rsktak egt n ari ga.  
Irstn zrnean dtu mgkorra,  
OK?*

SMS mezuen gizarte-fenomenoa gazteen artean zabaldu da nagusiki, eta horren ondorioek komunikazioaren eremua gainditu dute eta beste eremu batzuetara iritsi dira, hala nola hezkuntzara. Gaur egungo gazteentzat nortasun-ikur bilakatu dira SMS mezuak. Ezaugarrien artean, idazkera bitxia, eroso, oso grafikoa eta ia "hieroglifikoa" aipa daiteke. Idazkera hori gero eta zabalduago dago, eta SMS mezuetan duen aplikazio soila gainditzen ari da. Gazte askok, idatziz komunikatzeko, hizkuntza ofizialean oinarrituta sortu den, baina arau ortografikoak edo sintaktikoak betetzen ez dituen "sasi-hizkuntza" bat darabilte. Hori erronka handia da, eta arreta handia eskaini beharko zaio eskuko telefonoetako idazkerak idazkera tradizionalaren parametroak hankaz gora jar ez ditzan.

Iñigo, Maite eta Leire erakuslehoak ikusten eta beren gaztetaz mintzatzen

## Gazteak, Aisia eta Teknologia Berriak

ari dira. Arropa-denda batean daudela, Ikerren dei galdu bat jaso dute. Haren bila irten dira. Lotan geratu omen da! Bart "txateatzen" aritu da oso berandu arte, eta oso lo gutxi egin du. Horregatik, lagunak deika eta deika ari ziren bitartean, mp3-an musika entzuten ari zela lo geratu da, eta ez zen gauza musikaz bestelako ezein soinu aditzeko.



Dagoeneko elkarrekin daude, eta gauean Maiteren etxean ikusi nahi duten filma Internetetik jaisteko astirik izan duen galdetu dio Iñigok Ikerri. Ikerrek tarifa laua du etxean, eta gaur gauean ikusteko filmen bat bilatzeaz arduratu zen. Ikerrek erantzun dionez, ez du ezer jais-terik izan. Izan ere, ordenagailua birus batekin kutsatu zaio eta berriz formateatu behar du.

*Zalantzarik gabe, Interneten gehien erabiltzen den prestazioa web-nabigazioa da, informazioa bilatzeko edo kontsultaren bat egiteko. Horren atzetik, honako hauek ditugu: posta elektronikoa, berehalako mezularitza edo messenge-*

*rra, produktuen edo zerbitzuen erosketa edo erreserba, txatak edo foroak, online jokoak, musika, jokoak edo filmak jaisteko zerbitzua eta banku-kontsultak.*

*Internet zerbitzu-emaila ona da, eroso eta bizkorra baita. Hala ere, kontu handia izan behar da zenbait alderdirekin.*

*Arriskuak saihesteko, komeni da kontsumitzaileak:*

- *Bere ordenagailua antibirusarekin eta su ebakiarekin babestea.*
- *Datu pertsonalik ez ematea: izena, etxe-ko edo ikastetxeko helbidea, telefonoa edo kontu-zenbakia.*
- *Esaten dioten guztia ez sinestea! Zibernauta orok bere buruaz esaten duena ez da beti egia.*
- *Jakitea ez dagoela behartuta iragarkitaulei edo elkarrizketa-mezuei erantzutera.*
- *Ziurrak ez diren web-orriek ez fidatzea. Giltzarrapoaren edo giltzaren ikonoak, adibidez, web-orri seguru batetik nabigatzen ari dela bermatzen du.*
- *Pirateatutako muskarik, jokorik edo filmik ez jaistea.*

## Gazteak, Aisia eta Teknologia Berriak

Denda-mota orotan ibili ondoren, ziberkafetegi batera joatea erabaki du taldeak. Bertan, bideojoko-partida batean aritu dira beste zibernauta batzuekin.



*Jokatzea giza bulkada naturala da. Gure ingurune digitalean, bideojokoen agerpenean islatu da bulkada hori. Bideojokoek trebetasunak garatu, sormena piztu edo balioak transmititu ditzakete, betiere irizpide egokiei jarraiki aukeratzen badira eta denbora kontrolatuta erabiltzen badira.*

*Internetek zabaldu egin ditu bideojokoen aukerak: joko berriak eta jokatzeke kide berriak. Jokatzeko lekurik ohikoenak ziberkafetegiak, kulturgunak edo etxeko ordenagailu pertsonalak dira, baina bideojoko motaren edota bideojokoari eskaintzen zaion denboraren inguruko zuhurtzia ez da ezein kasutan ahaztu behar (komeni da egunean bi ordu baino gehiagotan ez jokatzea, eta orduro 15 minutuko atsedena hartzea).*

*Kontsumitzaileak bideojokoaren edukia zein den jakiterik ez badu, PEGI sistematik lagundu diezaiokete edukia zein den eta bideojokoa zer adinetarako gomendatuta dagoen jakiten.*

Arratsaldea badoa aurrera, eta iluntzen ari da pixkanaka. Bitartean, bideojoko-partidan murgilduta jarraitzen du taldeak. Bideokluba itxi egin dute dagoeneko. Hortaz, Maiteren etxean film bat ikusteko plana datorren larunbaterako utzi beharko dute.

Azkenean, denak etxerako bidea hartu dute, baina, agurtu aurretik, igandean bizikletaz ibiltzeko geratzea proposatu du Leirek: *merkea da, ariketa egingo dugu eta "aireztatu" egingo gara.* Oso proposamen ona iruditu zaio talde osoari. Ikerrek autobusera igo aurretik adierazi duenez, *"neuronentzat ere igandea izango da!"*.

5. ZK. ALDIZKARIA 2008

REVISTA

**K**ontsumo

ALDIZKARIA


Zuri gerta dakizuke

# Zuri gerta dakizuke

## KASUAREN AZALPENA

Erreklamatzailerak etxera itzuli da oportunitatik, eta eskuko telefonoaren fakturak islatzen duen gastua aurreko fakturen zenbatekoa baino askoz handiagoa dela ikusi du.

Borondatez egindako deiez eta mezuez gain bidalitako mezu laburren kopuru handiak eragin du fakturaren igoera hori. Izan ere, mezu labur horietako bakoitzaren zenbatekoa euro batetik gorakoa izan da.



Eskuko telefonoaren zerbitzuaren kontratua egin dion telefono-konpainiari azalpenak eskatu ondoren esan diote, ziur aski erreklamatzailerak SMS zerbitzu batean alta hartu duela, hartzailearen konturako mezuak maiz jasotzen dituen erreklamatzailerak.

Erreklamatzailerak ez du onartu zerbitzuren batean jakinaren gainean egonik alta hartu duenik. Senitartekoren batek lehiaketaren batean parte hartzeko edo melodiak jaisteko eskuko telefonoa erabili ote duen zalantza sortu da, baina erreklamatzailerak ezetz uste du.

Egoera horren aurrean, adostasuna eman gabe jaso dituen mezuen zenbatekoa telefono-konpainiak itzul diezaion eskatu dio erreklamatzailerak Arbitro Taldeari.

Telefono-konpainiak argudiatu duenez, kontsumo hori erreklamatzailerak eskutatako Premium Mezularitzako zerbitzuei dagokie, eta ez da ikusi Premium mezu horien hornitzaileek irregulartasunik egin dutenik.

## ARBITRAJE ERABAKIA

Kasuaren azterketak honako datu hauek eman ditu:

- Erreklamatzaileri alta eman zaio mezuak jasotzeko zerbitzuan, baina hark baimena eman gabe.

# Zuri gerta dakizuke

- Aldi labur samar batean mezu kopuru handia jaso izanak erreklamatzaileraren borondatek at dagoen jarraibide bati erantzuten dio.
- Erreklamatzailerak ez du informaziorik jaso kontratua egin aurretik, eta ez du sinatu kontratu horren onarpenik.
- Zerbitzu horrekin lortutako etekinen banaketan parte hartzen duen telefono-konpainia zerbitzua ematen duen konpainiak bere operadorearen bitartez eskaintzen duen informazioaren eta erabileraren erantzulea da.

Hori guztia dela-eta, eta kasu horretarako, Arbitro Taldeak honako Laudo hau eman du, aho batez onartu ondoren:

*Fakturan islatuta dauden, eskuko telefonoaren bidez egin diren eta tarifakazio gehigarri bati lotuta ez dauden mezuak eta deiak ordaindu beharko dizkio erreklamatzailerak telefono-konpainiari.*

Erreklamazioa jaso duen telefono-konpainiak balio erantsiko mezuen (hau da, SMS Premium mezuen) zenbatekoa ordaindu beharko dio erreklamatzailari, erreklamatzailerak ez baitzuen izan informazio eraginkorrik, egiazkorik eta nahikorik erabilitako zerbitzuari buruz.

Gogorarazi beharra dago arbitraje-kasu bakoitza banaka aztertzen eta kontuan hartzen dela, eta kasu bakoitzaren azterketa xehatuak ikuspuntu eta arbitraje-erabaki desberdinak eman ditzakeela.



Laudoa loteslea eta betearazlea da, eta Laudoan bertan adierazitako epean bete behar da. Bestela, nahitaezko betearazpena eska dakioke Laudoa eman den tokiko Lehen Auzialdiko Epaileari.



5. ZK. ALDIZKARIA 2008

REVISTA

**K**ontsumo

ALDIZKARIA

Zure eskubidea da...



# Zure eskubidea da...

"Pertsona orok atsedena hartzeko, aisialdiaz gozatzeko eta lanaren iraupena zentzuz mugatzeko eskubidea du...". (Nazio batuen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean onartutako Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 24. artikulua).

Gazteen aisialdia oso garrantzitsua da harremanak sustatzeko eta harremanei eusteko. Gainera, eguneroko betebeharren ondoren atsedena hartzeko, eta hezkuntzaren eta lanaren esparruko eguneroko diziplinaren eta tentsioen ondoren lasaitzeko funtzioa betetzen du.

## Aisia motak ezagutzea eta ezetz esaten jakitea

**Gozatu** nahi den aisia mota aukeratzeko garaian, **aisia pasiboa** aukeratuz gero (hau da, "ezer ez egitea", estimuluen zain egon eta ondoren erreakzionatzea) izaki erreaktibo bihurtzeko arriskua dago.

**Aisia aktiboa** aukeratzen bada, berriz, proiektuetan eta garapen pertsonalean inbertituko da, eta sormena sustatuko da. Hau da, pertsonak jarrera proaktiboa agertuko du.

Interesgarria da pentsatzea aisia "norberarengan inbertitzea" dela, hau da, norberaren sentikortasunean, jakiteko

irrikan, hobekuntzaren bilaketan, eta hunkitzen duten gauzeekin gozatzeko edota errealizazio pertsonala lantzeko edo bultzatzeko gaitasunean inbertitzea.



Gazte gehienek asteburuetan kokatzen dute aisialdia. Ostiraletik igandera bitartean, hainbat adinetako gazte talde askok udalerrietako hainbat eremu okupatzen dituzte.

Askotan, gazteenen ikuspegiaren arabera, aisia mota horretan *dena da zilegi* helduek ezarri ohi dituzten arauak puskatzeko. Zenbaitetan, *dena da zilegi* horrek ongi aztertu eta kontrolatu beharreko arriskuak dakartza. **EZETZ ESATEA ERE AUKERA BAT DA.**

## Erakundeek hainbat aisia-aukera bultzatzen dituzte

Toki askotan, erakundeek bultzatutako ekimenak hasi dira agertzen. Ekimen horien bidez, aisia kontsumistarako edo asteburuko aisiarako alternatibak bila-

# Zure eskubidea da...

tzen dituzte, eta aisia alternatiboari lotutako ekimenetara jotzen dute.

Gure lurraldeko udalerrri askotan, badira aukera horiek. Adibidez, ezagunenetako bi aipatuko ditugu:

■ **Gauekoak:** Gaueko aisiako programa bat da, eta 14 urtetik gorako Gasteizko gazteei zuzenduta dago. Gauekoak programan, gazteek egindako iradokizunetan oinarrituta hilabetez hilabete prestatutako programazio bat aurki daiteke, eta jarduera mota oro egin daiteke: kirol-jarduerak, kultura-jarduerak edo, besterik gabe, topagunez eta topaldiez gozatzera zuzendutako jarduerak.

■ **Bilbo Gaua:** Asteburuetako gauetarako aisia alternatiboko proposamen bat da, 16-30 urteko Bilboko gazteei zuzenduta dago, eta gazteek aisia alternatibo eta osasungarri batez gozatzeko duten premiari erantzutea du helburu.

Horretarako, hirian dauden bitartekoak baliatuta, kultura-jarduerak, jolas-jarduerak eta kirol-jarduerak bultzatu nahi dira.

*Informazio gehiago izateko:*

[www.gazteaukera.euskadi.net](http://www.gazteaukera.euskadi.net)



## Teknologia berriak: aisia-aukerak

Ordenagailuak, Internet, bideojokoak, eskuko telefonoak eta abar, hau da, teknologia berriak, aisiarako beste aukera bat eta garapen-tresna ukaezinak dira.

Interesgarria izango litzateke gazte guztiek teknologia horiek erabiltzeko aukera izatea. Izan ere, gaur egun teknologia horiek erabiltzen ez dituztenak lan-aukerak, gizarte-harre-manetarako aukerak eta entre-tenimendu-aukerak galtzen dituz-tenen eta "hesi digital" izenekoak kaltetutakoen zerrendan sar daitezke.


## Datuen babesa. Kontuan hartu beharreko arazo larria.

Teknologia berriek, eta Internetek nagusiki, mundurako leiho bat zabaltzen digute botoi bat sakatze soilarekin. Hori da teknologia horien xarma nagusia.

# Zure eskubidea da...

Alderdi hori, aldi berean, mehatxurik handiena da: askotan, ezin dugu ziur jakin nor dagoen beste aldean.

Mehatxu hori are handiagoa da datuen elkartrukean edo komunikazioan oinarrituta funtzionatzen duten zerbitzuetan, hala nola txatetan, berehalako mezu-laritzan, posta elektronikoa, foroetan eta blog edo fotoblogetan.



Halaber, tentuz ibili behar dugu eskuko telefonoa erabiltzen dugunean, edo sarean beste batzuekin bideojokoetan ari garenean.

Gogorarazi beharra dago Internetek "ez duela jaberik". Edonork erabil dezake, asmo eztabaidagarriekin zenbaitetan.

Intimitaterako eskubidea beti errespetatu behar da, eta zenbaitetan baliabide teknologikoak edo beste aldean dauden pertsonak eskubide hori urratzeko estrategiak erabiltzen saiatzen badira

ere, ez dugu halakorik onartu behar. Gure eskubideak errespetatzen ez direla sentitzen badugu, salatzeke aukera dugu beti.

Gure datu pertsonalak eskatzeko joerarik handiena duten aplikazioen artean, cookieak, posta elektronikoa eta foroak aipatu behar ditugu. Kasu horietako askotan, ez dago oso garbi zertarako erabiliko dituzten gure datuak.

Datu pertsonalak ematekotan, ezinbestekoak baino ez ditugu eman behar, eta orri seguruetan. Gainera, datu horien gaineko kontrolak intimitatea eta pribatasuna babesten lagunduko digu.

**Kontuz eduki desegokiekin!**

Interneten, bideojokoetan edo telebistan -adibidez-, legez kanpoko edukiak (eduki pornografikoak, pertsonen segurtasunaren aurkakoak eta abar), kaltegarriak (indarkeriazkoak, drogen kontsumoa bultzatzen dutenak eta abar) edo gezurrezkoak aurki ditzakegu.

*Iragazkiak tresna egokiak izan daitezke zabor-postaz edota Interneten edo eskuko telefonoetan agertzen diren orri desegokiez babesteko. Telebistari dagokionez, ordutegiak zein programen izae-ra kontrolatu behar dira. Bideojokoak erosteko edo erabiltzeko garaian, kon-*

# Zure eskubidea da...

*tu handia izan behar da, eta adin jakin baterako egokitasuna edo tipologia balioetsi. PEGI sistema aliatu ona izan daiteke.*

[www.pegi.info/es/](http://www.pegi.info/es/)



**Teknologia berriak bai, baina kontuz denborarekin.**

Zalantzarik gabe, teknologia berriek eskaintzen dituzten abantaila guztiak **baliatu behar dira, eta guztiei probetxua atera behar zaie**, baina mugara iritsi edo muga gainditu gabe.

Teknologiak eskaintzen dituen erantzunak eta abantailak hain berehalakoak izateak neurritz kanpo erabiltzera bultza dezake.

Eskaini beharreko denbora aldez aurretik planifikatzea eta teknologiari zer erabilera zehatz emango zaion jakitea oso baliagarria da denbora ez-emankorra saihesteko.

Aisia “birtualari” eskainitako denbora adiskideekin edo familiarekin igarotzen den aisialdi “presentzialarekin” konbinatu beharko litzateke.